

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Auzitegi Gorenak bermatu egin du Hezkuntzako ikuskarrien oposizioa

AFAPNA sindikatuak bi ikuskatzaile plazari euskara ezagutza ematen zien lan eskaintza publikoaren kontra jarritako errekurtsorearen aurka egin du Auzitegiak

Osteguna, 2019.eko urtarrilak 17

3/2018 Foru dekretuari errekurtsua jarri zion AFAPNA sindikatuak bere egunean. Foru dekretu hark 20/2015ekoa aldatzen zuen. Zehazki, Hezkuntza ikuskaritza zerbitzuko bi plazari euskara profila ezartzeko aldatu zen foru dekretua, lan eskaintza publikoan eta horren kontra jo zuen sindikatuak.

Auzitegiak dioenez, Nafarroako gobernuak egindako dekretuaren aldaketa zuzena izan zen. Izan ere, bilatzen zuena zen hasiera egindako lan eskaintza publikoa gerora aldatu zen plantila organikora egokitzea. Horretarako aldatu zen, hain justu, 3/2018 foru dekretua. Auzitegiak bermatu duena, zehazki. Halaber, auzitegiaren iritziz, Ikuskaritzako bi plaza horiei euskarazko profila ezartzeko beharra guztiz justifikatuta dago kontuan izanik "Hezkuntza Ikuskaritza Zerbitzuaren plantila zein den, euskara ezagutzen duten ikuskatzaile kopurua aintzat hartuz, ikastetxeak bere eredian artatuak izateko duten beharra eta irakasleak, ikasleak eta familiak euskaraz artatuak izateko zailtasunak". Epaiak AFAPNA sindikatuari egotzi dizkio epaiaketaren kostuak.

Aipatutako lan eskaintza publikoaren plazak 2018koan deitu ziren. Oposizio lehiaketa gainditu zuten pertsonak joan zen irailaren lehenenean hartu zuten kargua eta dagokion praktika-aldia egiten ari dira Hezkuntza Departamentuaren Ikuskaritza Zerbitzuan.